

EDITORIALA

Malgu eta merke

Malgu bezain merke, behartsu bezain ezegonkor. Halakoxeak dira azken urteotan gurean gertu ematen diren prekaritatearen ezaugarrieta-ko batzuk, makina alditan ezaugarri horiek denak batera topatzen direlarik. Ongi asko baliatu da bertako patronala erreforma ezberdinek eta legediek, oro-har, eskaini dizkioten bitarteko guztiak erabiltzeko. Horiek arautzeko hemen eskumenik ez eta, aginte publikoen jarrera ere geldoa eta ez ikusiarena izan da, errealitate gordin hau aurrera hedatzen joan den bitartean. Ondorioak oso latzak dira: enplegua izan arren pobre diren langileak, bizi-proiektua bideratu ezin duten pertsonak, pobrezia kondenaturik daudenak... Bereziki zigortuak dira testuinguru honetan emakumezkoak eta gazteak, beraiek pairatzen baituzte zuzenki hortik eratorritako injustiziak.

Patronalaren aldeko lan merkatuaren desorekatik abiatuta, gizarte-ari eragiten dio egoera honek: finean eraikitzen ari dena gizarte eredu etsitua, pobrezian errotua eta miseria orokortuan oinarritua da. Ia ez dago kontratu finkorik, ez eta lan baldintza duin eta egonkorrik, bereziki langile berrientzat. Behartutako lanaldi partzialak, aldi baterako kontratuak, miseriazko soldatak, estatuko hitzarmen pobeak, kontratazioan iruzurra, outsourcing enpresak, neurrigabeko azpikontratazioa... Dirudi denak balio duela ahalik eta enpresek etekin handienak metatu ditzaten. Tenore berdinekoa da administrazio publikoen jarduna, enplegua suntsitu, soldatak izoztu eta behin-behinekotasuna handitu baitute bere erantzukizun zuzeneko eremutan. Zer esanik ez azpikontratatzen dituzten sektoreetan.

Ez, hau ez da gure erueda eta ez dugu *amen* emango. Gure erantzukizunari helduaz, prekaritatearen aurpegiak dauden lekuetan irmo egingo diogu aurre egoerari eta langileak antolatuz horiek ekiditeko saiakera sendoa egingo dugu. Langile klasea zatikatzera etorri den prekaritateari aurre egiteko denon ahalegina behar dugu, egungo eta biharko langileak asko baitugu jokoan. Tresna kolektiboa den sindikatua indartu behar dugu militante gutxion artean gure egunak ezaugarritzen duten izurrite hau denon artean baztertu ahal izateko. Malgu eta merke betikotu ez gaitzaten!

Durante los próximos meses ELA hará visible la miseria laboral y concienciará sobre la necesidad de organizarse y movilizarse

ELA, EN GUERRA CONTRA LA PRECARIEDAD

A partir de este martes 10 de noviembre, ELA dará el pistoletazo de salida a una ambiciosa campaña informativa con la que quiere hacer visible la apuesta del poder político y económico por la precariedad laboral, en contraposición con los altos beneficios de las empresas. Tal como denunció el secretario general de ELA –Adolfo Muñoz– en la presentación de la campaña “nunca los salarios han tenido una participación más baja en el reparto de la riqueza; sólo la organización y la lucha cambiarán esta injusticia promovida por gobiernos y patronal”. Durante los próximos meses, ELA empapelará polígonos industriales y calles, y repartirá decenas de miles de folletos informativos explicando las terribles consecuencias del empobrecimiento que nos quieren imponer y las alternativas que propone el sindicato.

TRES EJES COMUNICATIVOS

La campaña tendrá tres ejes comunicativos generales. El primero, la extensión de salarios miserables, el incremento de los beneficios empresariales y el aumento de las desigualdades.

El segundo, el valor del sindicato como instrumento para organizar y reforzar la identidad colectiva frente al individualismo; la solidaridad de clase frente al sálvese quien pueda. No existe una democracia digna de tal nombre sin un sindicalismo fuerte.

El tercero, el valor de la lucha sindical frente a la resignación sindical, social y política. Una sociedad democrática sin conflicto social es lo más parecido a una dictadura.

Con esta campaña, el sindicato pretende, por un lado, limitar el efecto de la propaganda de los gobiernos y la patronal sobre el crecimiento –ellos dicen que el crecimiento, por sí solo, reduce las desigualdades– y, por otro, lograr que una parte de la sociedad apoye la reivindicación contra los bajos salarios. ELA quiere poner en el centro del debate el reparto de riqueza y la dignidad en el trabajo.

El salario es la principal vía de distribución de riqueza. La caída salarial es el resultado buscado por gobiernos y patronal con las reformas. En este sentido, la campaña insistirá en las consecuencias de empobrecimiento general que conlleva una sociedad con bajos salarios. El *milagro* del crecimiento consiste en extender miseria laboral y en aumentar beneficios y sueldos –bonus– para los directivos de las empresas. Explicar las dos caras: la miseria laboral y los beneficios y premios obscenos.

Por ejemplo, los 10 millones de euros del bonus del presidente de Euskaltel son 400 empleos durante un año a 25.000 euros al año, y 600 si fueran 16.800 (que son 1.200 euros x 14 pagas). La campaña intentará socializar la desesperación en la que viven los colectivos empobrecidos.

El sindicato explica una dura coyuntura para que respondamos, también la militancia, a unas preguntas: ¿qué papel debe desempeñar ELA ante el deterioro laboral y social sin precedentes que lideran gobiernos y patronales?, ¿qué debe



En la imagen Adolfo Muñoz, Txiki, –secretario general– y Patxi Agirrezabala –responsable de comunicación– con el cartel que nuestro sindicato ha elaborado con motivo de la campaña en contra de la precariedad.

hacer ELA para tratar de impedir la caída salarial?, ¿qué hacemos ante la imposición de salarios de 500 ó 600 euros?, ¿se puede vivir con dignidad trabajando 12 horas al día a 5 euros la hora?

OBJETIVOS DE LA CAMPAÑA

La campaña interpela a los poderes públicos sobre su política salarial y de condiciones de trabajo. El sector público condiciona un determinado modelo de sociedad al tomar decisiones como empleador: ha destrozado la negociación colectiva, elimina mucho empleo y es precursor en la política de externalización. Recordar, también, que está en tramitación la ILP sobre cláusulas para la subcontratación pública, de la cual haremos un seguimiento muy cercano. El objetivo de las enmiendas es que nada impida licitar contratos por cantidades que impidan cumplir los convenios colectivos; más allá de que si lo licitado no da para que la obra se realice y se aprueben sobrecostes (con procedimientos más que dudosos).

La campaña denuncia, también, la posición de bloqueo que ejerce la patronal para anular la negociación colectiva. ELA quiere deslegitimar el comportamiento de esa patronal y el apoyo que recibe de los gobiernos para dos de sus apuestas: empeorar las condiciones de trabajo y atacar al sindicalismo.

Y es que, sin duda, otro de los objetivos de la campaña es activar la acción sindical y la negociación colectiva en sectores y empresas. Sin duda, todo lo anterior, si se trabaja bien, supondrá una mejora organizativa del sindicato, y un mayor nivel de compromiso para atajar la precariedad.

(Sigue en la página 2)

Lankidetu!

CAMPAÑA LARGA, A NIVEL DE EMPRESA, SECTOR Y CALLE

La campaña contra la precariedad de ELA continuará durante el 2016. Durante el tiempo que la campaña los ejes comunicativos elegidos entran y salen de escena. Está previsto que se lleven a cabo diferentes acciones confederales, comarcales, en sectores y empresas, que se irán concretando.

Los ejes comunicativos, sobre todo el referente al tema de las condiciones de trabajo, tienen una concreción en cada federación, sector y empresa. Esto significa que los contenidos generales de la campaña serán complementados con la propaganda que elaboren las federaciones. Así pues, habrá una propaganda general –que debe llegar a todos los sitios– y otra particular de cada ámbito.

El sindicato anima al conjunto de la militancia a participar activamente en esta campaña contra la precariedad con la que se pretende destacar el valor de la lucha sindical frente a la resignación sindical, social y política.

UNA CAMPAÑA... ¿PARA QUÉ?

1.- PARA HACER VISIBLE LA APUESTA POR LA MISERIA LABORAL Y LOS ALTOS BENEFICIOS DE LAS EMPRESAS

La caída salarial arrastra una sociedad empobrecida en todos los ámbitos. El sindicato quiere representar la oposición a la precariedad.

2.- PARA SUBRAYAR EL VALOR DEL SINDICATO

El capitalismo nos reta: no vais a lograr base real en las empresas. Se trata de reconstruir el poder sindical en condiciones adversas. El sistema político y social no produce sindicalistas; al contrario, los estigmatiza. ELA quiere reforzar identidades colectivas que nos ayuden precisamente a eso, a hacer sindicalistas. ELA quiere ocupar un espacio en el debate social con una posición más política.

3.- PARA DAR VALOR A LA REIVINDICACIÓN Y LA LUCHA

El sistema solo deja al movimiento sindical la opción por el contrapoder; todo lo demás está integrado y subordinado.

EGON BADAGO
VUESTROS BENEFICIOS
NUESTRA MISERIA LABORAL

Florentino Pérez ACS (Actividades de Construcción y Servicios) Bere agintean gaberuak eskutik eta langileak esplotatzen irakurri du.	Ignacio Sánchez Galán IBERDROLA Fomenta la explotación hasta Septiembre de este año. 1.319 millones de euros de beneficios en Iberdrola 42.000 euros... diarios.	José Antonio CEN (Patronal de Navarra) regulador de redes clientelares en Caja Navarra, por el régimen y de la jerarquía empresarial.	Pello Gibelalde ADEGI Gure seme-ateak Txina eta Indiara pasate nahi du, "eroso" bizi baitira.	Josu Jon Imaz REPSOL 1.500 enplegu sursailtuko ditu atzerriko nazioarteko laurietarako salburu oha.	Gregorio Villalabeitia KUTXABANK Destruye 2.000 empleos para alcanzar 500 millones de beneficio y privatizar las cajas.	Alberto García Erosuzkin EUSKALTEL 50 millones de euros de la dirección equivalentes a 2.000 empleos cada año con un salario de 25.000 euros.	Yolanda Barcina TELEFONICA Reguló la Caja de Navarra (CAN) a Cababank (accionista de Telefonica). Puertas giratorias: 200.000 euros anuales. Ex presidente del Gobierno de Navarra.
---	--	--	---	---	---	---	---

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

PREKARIETATEAZ MINTZO GAITZEN...



LANEKO ETA SOZIALA DEN MISERIA ZABALTZEN DOA

Gobernu eta enpresarioek krisia amaitu dela esan arren, kaleko jendeak eta langileok bada-kigu hori ez dela egia. Errealitate laboral eta soziala lazgarria

da. Soldatek aberastasunean duten zatia inoiz baino txikiagoa da; kontratu berriak, sekula baino miserableagoak, eta diru gehien dutenek ez dute inoiz orain bezain zerga gutxi ordaindu.

Beren komunikabideak ezkutuzten duten errealitate hau azken urteetan aplikatu izan diren politiken ondorio dira; berton, Madrilen eta Europan erabakitako politikak: lan munduaren eta soziala den guztiaren aurkako erreforma eta murrizketak. Hauek bereziki emakume eta gazteei eragiten die.

Erreforma eta murrizketak ez dira amaitu. Patronalaren aginduz beste erreforma laboral baten oinarriak prestatzen ari dira. Abusuz jokutzen dute; esplotatu egiten dute; 500, 600 eta (kasurik hoberenean) 700 euroko soldatak inposatzen dira, eta 10, 11 edo 12 orduko lanaldiak; ordaintzen ez diren aparteko orduak sartzen dira... Aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak kasu gehiegitan erabiltzen dira.

Enpresa askok etekina atera nahi du gure jendea bizi den txirotasun eta behar egoeratik, eta leporatzen dituen baldintzekin benetako esplotazioa egiten du. Halere, gehiago nahi dute: pobre eta eskubiderik gabe nahi gaituzte.

EURAK, ORDEA, GERO ETA ABERATSAGO

Hau da txanponaren beste aldea. Gure miseria enpresen irabaziazko puzteko oinarria da; horrela saritzen dituzte beren arduradunak eskandaluzko soldata, pentsio eta bonusekin. Langileon miseria hedatzeko planak egiten dituztenak erruz aberasten dira. Funtsezko helburua akziodunaren etekinak handitzea da, kosta ahala kosta.

Enpresa askok, esaterako Kutxabankek, Iberdrolak, Euskaltel edo Nafarroako ISN Taldeak, langileon eskubideen lepotik etekinik handiena lortu nahi dute; bitartean, zuzendaritzak dirutza bideratzen du beren poltsikoetara. Enpresa horiek agintean dauden alderdiekin lotura estua dute, eta eredu prekarioa ezartzen dute. Honek agerian uzten du jende honek ez duela ez lotsarik, ez etikarik.

SOLDATA KASKARREK POBREZIAREN KATEA SORTZEN DUTE

Murrizketa sozialek, gure pentsio gero eta txikiagoak... erabaki politikoak dira. Errenta altuei, enpresei eta kapitalari zergak jaisteak eta soldata apalak orokortzeak bidezko gizarte-eredua apurtu eta geneukan ongizate-estatu urria ere birrintzen du.

Gure oraina gogorra da, eta etorkizuna ez da errazagoa izango. Soldata txarrekin ezin da pentsio duinik ordaindu. Bazekiten soldatak eta kotizazio sozialak jaitsez gero pentsioak ere moztu egin beharko zirela; ondorioz, atea irekitzen zioten negozio pribatuari. Langile askok, kontratu tenporal eta partzialekin 500, 600, edota 700 euro irabazita, erretiratutakoan ez du pentsio duinik izango, eta are aukera gutxiago izango du pentsio pribatu bat osatzeko.

Hezkuntzan, Osasungintzan eta gizarte-prestazioetan izan diren murrizketekin gauza bera gertatzen da: kapitalak ez badu zergarik ordaintzen eta soldatak urriagoak badira, alternatiba bakarra murriztea da. Batzuk, gehienok, galtzaile gara, eta beste batzuk oparo bizi dira.

ELAK ERABILGARRI IZAN NAHI DU

Egoera zail honetan ELAk erabilgarri izaten jarraitu nahi du, babesgabezia laboral eta sozial gero eta handiagoari aurre egiteko. ELAk helburu horietarako gobernuari eta patronalari ez die babesik emango. Beraz, lantokietan oinarri sindikal antolatu bat behar dugu, errespetua irabazteko. Ez da erraza; erreformen beste helburu bat izan da sindikatuoi ahalmena kentzea beren planak eragozteko aukerarik izan ez dezagun. ELAn ziur gaude antolatuz gero beldurra gaindituko dugula; esaterako, gure enpresa edo sektorean aldarrikapen-plataforma bat egin daiteke eta borrokatu, gure lana eta gure kideona duintzeko.

Krisi madarikatu honetan lana berriro gizatiarragoa izan dadin aldarrikatzeko hamaika arrazoi dugu. Hori gauzatzeko antolatu egin behar gara.

ANTES ERAN DOS, AHORA TRES



Antes eran el PP y el PSOE y ahora son el PP, el PSOE y Ciudadanos. Compiten por ser nacionalista español. Es el cambio en España que, por si había dudas, se pone en práctica antes de las elecciones generales del 20-D. Los tres apelan a la obligatoriedad de cumplir las leyes españolas (que modifican a su antojo), a la igualdad entre los ciudadanos (nunca han sido tan grandes las desigualdades) y a la soberanía nacional española (y niegan ser nacionalistas). Pues bien, Rajoy hace un llamamiento para frenar las iniciativas de Cataluña.

Nada nuevo. Con este tipo de reacciones había que contar. Con estas y con otras que están por venir. Son ellos quienes han dicho NO a cualquier iniciativa que haya partido de Cataluña: Estatut, pacto fiscal, referéndum vinculante, consulta... Es el nacionalismo español que, ya sin los complejos por la lejana dictadura, dice NO con el objetivo de una España unificada.

Es tan contundente el NO español que la mayoría del Parlamento catalán (Convergencia, ERC y la CUP) ha concluido que deben iniciar un proceso

que no esté *supeditado* al veto español; un proceso que de viabilidad a las decisiones democráticas que tomen las Instituciones catalanas. Sin duda es la crisis institucional mas grave en el Estado desde que comenzó la transición. Han decidido confrontar democráticamente; no hay armas ni violencia por parte de Cataluña; hay ideas, proyectos y mujeres y hombres que desean llevarlos adelante. Hay voluntad popular, el arma más peligrosa. A quienes han decidido confrontar les gustaría un acuerdo, pero la otra parte no quiere acuerdos. Van a una vía de confrontación democrática y unilateral porque al otro lado no hay nadie más allá del NO sistemático. ELA se alegra de los parámetros en los que se ha colocado este conflicto político en Cataluña y felicita a los partidos y organizaciones sociales que lo apoyan. Les deseamos fuerza, mucha fuerza, y capacidad política para desarrollar los ejes del proceso soberanista que permitan sumar a la mayoría social.

Rajoy tendrá más aliados que el PSOE y Ciudadanos. CCOO y UGT de España exigen su protagonismo en ese Pacto de Estado. Dicen que "al consenso político debe sumarse el consenso social". Una foto que contrasta con el de esas dos organizaciones en Cataluña que han defendido el derecho a decidir de la nación catalana. Es muy llamativo que dos sindicatos hablen en España de *consenso social* en plena fase involutiva en los ámbitos laboral, social y político. Han decidido salir en defensa de un modelo de Estado centralista, antisocial y autoritario. Es igual que en Cataluña lo social sea una gran razón para las adhesiones sociales. CCOO y UGT apoyan un Pacto de Estado para negar el derecho a que naciones como Cataluña y Euskal Herria puedan autodeterminarse.

Vengamos a Euskal Herria. No va a ser ELA quien banalice la dificultad para llevar adelante un proceso soberanista. Lo que sí afirmamos con rotundidad es que avanzaríamos mucho si llegáramos a una conclusión y que la misma fuera el punto de partida. ¿Es alguno de esos tres partidos (PP, PSOE y Ciudadanos) un aliado solvente para sostener la apelación a la bilateralidad, a la relación entre iguales, entre España y las Instituciones Vascas? Pensemos que no; ninguno de los tres permite, con un mínimo de rigor, sostener esa afirmación.

Alimentar la posibilidad de una relación entre iguales con España tras el 20 de diciembre solo es posible si por parte vasca se renuncia a la posición política. Si se defiende con un mínimo de tesón la posición política vasca el acuerdo es imposible. Como prueba de ello, las permanentes rogativas del Gobierno Vasco para que se cumpla el Estatuto, lo que no deja de suponer un reconocimiento de debilidad y de falta de estrategia.

Quien levanta expectativas para un acuerdo de esa naturaleza tras el 20 de Diciembre sabe que esa posibilidad no existe. Sabe que esos tres partidos serán mayoría absoluta; que no está prevista ninguna hecatombe y que, al igual que en Cataluña, los tres gestionarán el NO a las expectativas vascas. Sabe también que mientras esas sean sus referencias políticas no se explorará un acuerdo para enfrentarse a ese NO español. El pretendido acuerdo con España actuaría de coartada para recorrer otras vías. Este es, en opinión de ELA, el mayor hándicap en la posición vasca y la mayor fortaleza, mientras dure, del proceso catalán.

Hace falta una cierta osadía política para que un pueblo –que es nación–

alcance sus fines soberanos. En nuestro país, el Gobierno de Gasteiz agota legislaturas con el mismo repertorio de iniciativas: promesas electorales; apelar, una vez que se llega al Gobierno, a que España cumpla con lo que está pendiente del Estatuto; esperar *discreta*mente a que el Gobierno español conteste; crear una Comisión Parlamentaria para analizar la situación del Autogobierno y que formule un nuevo estatus; elaborar informes que avalen esos incumplimientos; debates dentro de la Comisión que se alargan sine die y... ahí se acaba todo para volver a empezar. Cuando se alcanza el final de ese recorrido se convocan elecciones. Al final, el único objetivo real.

Hemos llegado a un punto en el desarrollo del autogobierno en el que solo les queda apelar al Concierto y al Convenio. Es –nos recuerdan– el hecho diferencial vasco. Todo lo demás –esto no se quiere reconocer– son leyes básicas estatales que establecen el marco en el que políticamente se desenvuelven las Instituciones vascas. Las leyes básicas son máquinas para convertir en meros gestores a las Instituciones vascas. ELA quiere subrayar que varias de las leyes básicas de contenido antisocial, han contado con el visto bueno de las Instituciones vascas.

También se quiere olvidar la suerte que corrió el Estatuto Político. Ni siquiera se admitió a trámite por las Cortes españolas. Eran tiempos de Zapatero e Ibarretxe. Nos parece una irresponsabilidad no explicar que hay vías que están agotadas. Son vías que se encontrarán con el NO, antes de dos, y ahora, de tres partidos. Antes eran dos y ahora son tres.

Adolfo Muñoz, Txiki,
secretario general de ELA

"EZ DUGU ONARTZEN KUTXABANKEKO LANPOSTUAK AMORTIZATZEKO PLANA"

ELAk Kutxabanken dituen ordezkariek agerraldi publikoa egin zuten azaroaren 4an zuzendaritzak CCOO eta Piskanaka sindikatuekin sinatu duen akordioa salatzeko. Izan ere, sindikatuko ordezkariek aipatu zuten, adostutako planak ondorio oso larriak izango ditu. "Azken finean lanpostuak amortizatzeke plan bat sinatu dute. Zorixarrez plan honek suntsituko dituen 276 enpleguak ez dira galzten diren lehenak: azken lau urteetan 1.098 lanpostu deuseztatu ditu erakundeak. Gainera, epe laburrean Kutxabankek beste 400 enplegu amortizatzeke erabakia hartuko dela aurreikusten da".

ELAk Kutxabanken dituen ordezkarrien iritziz, "enplegua suntsitzeko eta lan-baldintzak hondatzeko makina bat bihurtu da, efizientzia eta etekina lortze aldera. Kutxabank eta bere arduradun politikoak euskal gizarteari iruzur egiten ari zaizkio, etekina lehenesten baitute, soldata, kotizazio eta zergen kaltetan".

"No aceptamos el plan de amortización de puestos de trabajo de Kutxabank"

"ES INACEPTABLE QUE LOS PRESUPUESTOS FINANCIEN SUELDOS DE LA CEN, CCOO Y UGT"


ELA se concentró el 4 de noviembre frente al Parlamento de Navarra para exigir un Servicio Navarro de Empleo público y denunciar que el clientelismo no crea empleo. La concentración se hizo coincidiendo con la comparecencia en la Comisión de Derechos Sociales de la nueva directora del Servicio Navarro de Empleo. En este sentido, conviene recordar que nuestro sindicato ha hecho público que estudiará acciones judiciales para esclarecer la actuación del Servicio Navarro de Empleo, que en 2015 destina 3,9 millones de euros a pagar, al menos, 120 sueldos de la patronal navarra CES y los sindicatos UGT y CCOO.

Mixel Lakuntza, coordinador de ELA en Navarra, exige al Parlamento de Navarra que en los próximos presupuestos "no sigan financiando directamente con dinero público las estructuras de la patronal CEN, UGT y CCOO, tal y como se refleja perfectamente en los convenios que estas tres organizaciones disfrutaban en las cuentas de 2015".



Azaroan 30 urte betetzen dira atxilotua izan eta bere hilotza Bidasoa ibaian agertu zenetik

MIKEL ZABALZA OROITZEKO EKIMEN UGARI



Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak ekitaldi ugari prestatu ditu Mikel Zabalza (Orbaitzeta, Nafarroa, 1952) zena oroitzeko. Izan ere, azaroan 30 urte betetzen dira Zabalza atxilotua izan eta bere hilotza Bidasoa ibaian agertu zenetik. ELAK urteurren hau baliatu nahi du beste behin gertatutakoa behingoz argitu dadila exijitzeko.

1985. urteko azaroaren 26an Espainiako Guardia Zibilak hainbat lagun atxilotu zituen Donostian, Errenterian eta Orbaitzetan. Atxilotuen artean Mikel Zabalza gaztea zegoen, Donostiako Tranbiaren Konpainiako langilea eta gure sindikatuko afiliatua. Hurrengo egunean Guardia Zibileko iturriek Zabalza desagertu zela zabaldu zuten. Handik eta 20 egunetara, abenduaren 15ean, bere hilotza Bidasoa ibaian agertu zen, Endarlatsa parean.

Bertsio ofizialaren arabera, atxilotze aldian zulo bat miatzera joan zirenean Zabaltzak ihes egin zuen bere zaintzaz arduratzen ziren Guardia Zibiletatik, eta ihesa horretan zendu zen, itota. Hala ere, inork gutxi sinesten du bertsio ofiziala, ez garai hartan ez gaur egun. Nahikoa lekukotza, zantzu eta froga daude Zabalza jasandako tortura basatien ondorioz zendu zela ondorioztatzeko. Horregatik, ELAK heriotza honen urtemugan, gertatutakoa salatzeaz gain, Zabaltzaren familiak egia, justizia eta memoriarako duen eskubide osoa azpimarratu nahi ditu.

OROIMEN EKINTZA UGARI

Azaroaren 11n Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak aurkezpena egingo du 11:00tan Aieteko Bakearen Etxean (Donostia). Bertan, azaroan zehar egingo diren ekitaldi ezberdinak azaltzeaz gain, *Galdutako objektuak* proiektu dokumentala aurkeztuko da. Ondo-bidean dokumentala 2016ko urrian estreinatuko da.

Herri ekimen honen ordezkariak azpimarratzen dutenez, dokumentalak pausoak eman nahi ditu egia, aitortza, errepazioa eta justizia aldarrikatzeko bidean. "Aste gutxi barru gertakarien 30. urteurrena beteko da, eta familiak egia jakin gabe jarraitzen du. Gainera, izenburu hori hautatu izana ez da kasualitatea. Mikelen desagerketa iragarri eta hurrengo egunean bere senideak Guardia Zibilak Intxaurren zuten koartelera joan ziren. Euren senidearen inguruan galdetzean euren mintzakideek Mikel 'galdutako objektuen' atalean bilatzeko gonbita luzatu zieten".

Hurrengo hitzordua azaroaren 19an izango da Larraxoko Zentro Zibikoan; bertan *Lasa eta Zabala* filma emango da. Azaroaren 21ean, larunbata, hitzordua Mikel zenaren jaioterri izango da. Lehendabizi 10:30tan omenaldia eskainiko zaio Orbaitzetan; ondoren bildutakoak Garraldara joango dira, 12:30tan hasiko den ekitaldira.

Azaroaren 23, astelehena, 19:00etan *Galdutako objektuak* dokumentala eta *Intxaurren, la sombra del Nogal* liburua aurkeztuko dira Donostiako Bidebieta auzoko Auzo-nea kultur-gunean. Ostegunean, azaroak 26, mahai ingurua egongo da Tomaseneako Harri Gorri gunean (Donostia); bertan Mariano Ferrer, Paco Etxeberria eta Iñigo Iruin mintzatu-ko dira. Azkenik, azaroaren 29an, igandea, hitzordua Altzagainan izango da. Bertan herri omenaldia egingo zaio 12:30etatik aurrera.

DOKUMENTALA FINANTZATZEKO KANPAINA

Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak diru-bilketa kanpaina jarri du martxan. Izan ere, agerikoa den bezala, dokumentala zein herri ekimen hau aurrera eramateko ezinbestekoa da hainbat gasturi aurre egitea. Erraza da oso finantzazio kanpainan parte hartzea; aski da ekimenaren web orrialdean sartzea. Bertan dokumentalaren zein ekimen honen inguruko informazio guztia eskuratu ahal izango da. Informazio gehiagorako: <http://www.mikelzabalza.eus>

En noviembre se cumplen 30 años de la detención de Mikel Zabalza y la posterior aparición de su cadáver en el río Bidasoa. Por ello la iniciativa popular Mikel Zabalza Gogoan ha preparado numerosos actos

• En defensa del derecho a descansar

La plataforma que defiende un horario comercial en el que se respete el derecho a descansar y a disfrutar del ocio en domingos y festivos ha comenzado una campaña para denunciar la modificación de la Ley del Comercio de la CAPV. ELA –miembro de la plataforma– recalca su llamamiento a las trabajadoras y trabajadores del sector a que muestren su rechazo a la apertura en domingos y festivos, y participará en las movilizaciones convocadas para las próximas semanas.

• "Candyrekin egiten den manipulazioa salatu nahi dugu"

Iragan astean hedabide batek iragarri zuen Bergarako Candy berriz martxan jartzeko proiektua aurrertuta zegoela. Hurrengo egunean beste hedabide batek gai honen inguruko mezu ezkorak zabaldu zituen. Industria eta Eraikuntza federazioko kide Patxi Zubizarretak Candy-ren gatazkarekin egiten den manipulazioa salatu nahi du. "Langileek ez dakite ofizialki ezer proiektuaren egoeraz, ez dakite finantzaketarik dagoen edo ez, ez dakite xehetasunik, zehaztapenik, ezta proiektu berria zein baldintzatan gauzatuko zen ere. Informazio hauen erabilera okerra salatu behar da. Konponbide bat bilatzen lagundu ordez, proiektuaren bideragarritasuna lohitzten, zailtzen eta zalantzan jartzen da".

• Gipuzkoako papergintza, hitzarmenaren alde

Gipuzkoako papergintzaren alorrean ordezkariak duten sindikatuek lan hitzarmenaren aldeko mobilizazioak hasi zituzten iragan astean. Mobilizazioen helburua Adegiren jarrera salatzea da. Izan ere, sektore-rako hitzarmena lortzeko negoziatio-etan patronalak asmo bakarra erakusten ari da: uneoro trabak jartzea.



www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207